

Labayru Fundazioa Barandiaranek zabaldutako bidetik

Igone Etxebarria Zamalloa
Akaitze Kamiruaga Garitaonaindia
Labayru Fundazioa

Laburpena

Mende bat igaro da On Jose Miguel Barandiaranek *Eusko Folklore Urtekaria* sortu zuenetik. Esan daiteke gaur egun Euskal Herrian diren zientzia aldizkarien artean bizirik dirauen zaharrenetarikoa dela. Erraz esaten da ehun urte, baina ibilbide horretan aurrera jarraitu ahal izateko gorabehera ugari gaingitu behar izan ditu.

Urtekariak etnografia egiteko modu berria ekarri eta oinarri metodologikoa ezarri zuen. Handik hainbat urtetara, Labayru Fundazioak iturri horretatik edan zuen bere lan-ildoak zehazteko eta jarduteko erak ezartzeko orduan.

Gako-hitzak: Etnografia, Euskal Herriko Atlas Etnografikoa, Labayru Fundazioa, Herri Ondarea, transmisioa.

Jasotze data: 2021eko uztailaren 30ean
Onartze data: 2021eko abuztuaren 30ean

Resumen

Ha pasado un siglo desde que don José Miguel de Barandiarán fundara el *Anuario de Eusko Folklore*. Puede decirse que es una de las revistas científicas más antiguas que perviven en Euskal Herria. ¡Un siglo nada menos! En esa andadura ha tenido que superar numerosas vicisitudes.

El anuario aportó una nueva manera de tratar la etnografía asentando una metodología propia. Años después, la Fundación Labayru siguió la estela de Barandiarán a la hora de definir sus proyectos de investigación y establecer sus formas de actuación.

Palabras clave: Etnografía, Atlas Etnográfico de Vasconia, Fundación Labayru, Patrimonio Cultural, transmisión.

1. 60-70KO HAMARKADAN DERIOKO SEMINARIOKO MUGIMENDUA: BARANDIARAN, ETNIKER BIZKAIA ETA LABAYRU FUNDAZIOA

Labayru Fundazioa 1970eko hamarkadan sortu zen, Labayru Ikastegia izenez. Labayru-ekin batera asko eta asko izan ziren garai hartan eraturako erakundeak, elkarteak, kultur taldeak, etab. Euskal gizartean eta euskalgintzan XX. mendeko 60 eta 70eko hamarkadetan sortutako ekimen horiek ez ziren ezerezetik jaio. Ekimenok ezin dira ulertu mende hasierako *Euskal Pizkundera* kontuan hartu barik. Horixe dio, hain zuzen ere, luzaroan Fundazioaren zuzendari izan zen Ander Manterolak (2003) *Euskal Pizkundera Bizkaian* izeneko lanean. Mugimendu horrek XIX. mendearen amaieratik 1936ko gerra etorri arte iraun zuen. Aberastasun eta bizitasun handiko garaia izan zen alderdi guztietatik begiratuta, Euskal Herrian bezala Espainia osoan. Indar itzela izan zuen politikan, kulturean, arteetan ...; azken finean, bizitzako arlo guztiak hartu zituen. Momentu hartan izan zuen eraginaz gainera, orduan ereindako haziak fruitu ugari eman zituen gerora ere.

Iritzi berekoa da Gaspar Martínez (2003), Labayruko lehenengo zuzendaria izan zena, eta halaxe azaltzen du Labayru Fundazioaren 25. urteurrena ospatzeko egindako argitalpenean. Martínezek Derioko Seminarioan eratu zen “Derio Mugimendua” deitzen duen horretan kokatzen du Labayruren sorrera. Mugimendu hori guztiz lotuta zegoen mende hasieran, Pizkunderan bete-betean murgilduta, Gasteizko Seminarioan bizi izan zen kultura giroarekin, eta biak parekatzen ditu; bien arteko lokarri zuzena Jose Miguel Barandiaran izan zelarik.

Martínezen esanetan, XX. mendearen hasieran Gasteizko Seminarioan irakasle talde batek, Barandiaran buru zela, aparteko ahalegina egin zuen fedearen eta kulturaren arteko elkarriketa eta lotura sortzeko. Garai hartako eliz giroa egokia zen sasoiko kulturaren erronkei erantzuteko. Orduko teologiak hanka bat bere aldiko kulturean eduki gura zuen, bere nortasunean oinarriturik. Horrez gainera, Pio XI.aren *Ratio Studiorum* abadeen prestakuntza zabalagoa izatea ezarri zuen, eta ondorioz, giza-zientziak eta zientzia positiboak seminarioetako kurrikulumean sartu zituzten.

Berrikuntza sakoneko giro horretan talde estrategikoa sortu zen Gasteizko Seminarioan, San Agustinen oroimenez “Casiciacum Zirkulua” zeritzana, Jose Miguel Barandiaran eta Manuel Lekuona tarteko zirela. Talde horren helburua Ebanjelioa herriaren giro kultural, intelektual eta erlijiosoan txertatzea zen.

Taldearen aitzindaria Barandiaran izan zen, eta haren metodoa abiapuntua. Metodologia horren arabera, norberaren herria, norberaren errealitatea ezagutu behar zen lehenengo eta behin, sustrai horietatik abiatuta, kultura horretan murgiltzeko eta kultura hori zabaltzeko.

Zirkulu horren inguruan hainbat ekimen sortu ziren, batzuk behin-behinekoak, baina beste batzuk, modu apalean jaio baziren ere, sendoak eta iraunkorrak izan dira: *Eusko Folklore Urtekaria*, kasurako. Esan dugun legez, 1921.ean argitaratu zen lehenengo alea, baina urte hori oso garrantzitsua izan zen, horrekin batera beste ekimen bi ere sortu zirelako. Alde batetik, *Eusko-Folklore. Materiales y cuestionarios* lau orrialdeko hileroko buletin urte horretako urtarrilean kaleratzen hasi zen. Eta, bestetik, Barandiaranek seminarioko hainbat ikaslerekin batera *Eusko Folklore Sozietatea* sortu zuen, Euskal Herriko udalerrietan jakintza herrikoia adierazpenak jasotzeko.

Barandiaranen gidaritzapean, sozietate horren helburua kultura ikuspegi etnografikotik ezagutzea eta ezagutaraztea zen. Horretan Barandiaran berritzailea eta aitzindaria izan zen, Europako ikertzaileengandik zetozen joerak eta gomendioak jarraituta, ideologia edo teoria guztietatik harago, hurreko ezagutza proposatzen zuelako, kultura zehaztasunez ezagutzea, landa-laneko datuetan oinarrituta. Lantalde horrek urtean zehar egindako ikerketa-lan xumeak argitaratzeko jaio zen *Urtekaria*.

Gasteizko Seminarioan,aldi berean, etnografian ez ezik, euskararen alorrean ere sortu zen mugimendua. Manuel Lekuonak “Kardaberaz Akademia” eratu zuen, gerora gure kultura eta gizarte mailan eragin handia izan zuten abadeak prestatu zituen. Lekuonaren xedea eta asmoa apaizek euren hizkuntza ikastea eta ikertzea zen, gero eurek sortuko zituzten testuetan erabili zezaten.

Baina sasoi hartako loraldiak eta susperraldiak ez zuen luze iraun. Gerrak eta haren ondorioek eten bortitza ekarri zuten, eta dena bertan behera geratu zen. Hala ere, erraldoi haiek sortutako energiak izan zuen jarraipena hamarkada batzuk geroago era batera edo bestera.

1950ean, Gasteizko Elizbarrutia hirutan banatu zuten, Bilbokoa, Donostiakoa eta Gasteizkoa, eta ordukoa da Derioko Seminarioa. Testuinguru horretan, 1960ko hamarkadan egin zen Vatikanoko II. Kontzilioa, lan pastoral ulertzeko beste modu bat ezarri zuena; hau da, elizaren egitekoen artean, ebanjelizazioa ez eze, munduarekin eta herriekin elkarriketa egitea ere bazen. Horrek “Derioko mugimendua” hauspotu zuen eta hirurogeiko hamarkadaren amaieran hasi zen lehenengo fruituak ematen.

Derioko mugimendua deitu dugun hori ekimen sorta bat izan zen, orduko Seminarioan 70eko hamarkadaren hasieran garatzen hasi zena. Hor kokatu behar ditugu Udako Ikastaroa, euskaldunei euskara irakasteko sortua; eta Etniker Bizkaia taldea etnografia ikerketak bideratzeko.

Hasiera horretan parte hartu zuten batzuen izenak ematekotan, ezin utzi aipatu gabe, Ander Manterola, Mikel Zarate eta Karmelo Etxenagusia, besteak beste.

Kultur ekoizpen handi horren ezaugarririk garrantzitsuena da Gasteizko Seminarioan 1915-1936 bitartean ereindako kultur- eta zientzia-mugimenduaren oinordeko izatea. Gerrak ekarritako eten gogorraren ostean, Gasteizko hazia indarrez erne zen Derion, etorkizuna eraikitzeke kultur lanen bitartez.

Orduko mugimenduaren emaitzak asko dira, eta sasoi hartan hasitako ikerketa-ildoek bizirik jarraitzen dute.

2. ETNIKER EGITASMOA ETA EUSKAL HERRIKO ATLAS ETNOGRAFIKOA

Jose Migel Barandiaranen ekarpenik handienen artean Etniker Taldeen sorrera eta Euskal Herriko Atlas Etnografikorako oinarriak ezartzea daude. Izan ere, bera izan zen egitasmu erraldoi horren sortzaile, jagole eta sustatzaile.

Barandiaranek erbesteratu egin behar izan zuen gerraren ostean. Iparraldean, Saran egin zituen urte batzuk, eta hegoaldean hasitako ikerketa eta metodologia aplikatuta, gogor ekin zion lanari, hango udalerri batzuetako bizimodu herrikoia deskribatzen zuten monografiak idatziz. 1953an bueltatu zen eta gerra aurreko egitasmoei oratu zien berriro ere.

1964an Nafarroako Unibertsitatean, Euskara eta Euskal Kulturako Katedraren barruan, "Euskal Herriaren Etnologia" gaia irakasteko proposamena egin zioten, eta irakasle jardun zuen 1979-80 ikasturtera arte.

Han irakasle zela, aukera izan zuen egitasmu zabalago bat abian jartzeko. Proiektu berri horri *Etniker* izena eman zion; hau da, "Etniaren ikerketa, edo ikerketa etnografikoa". Etniker ikerketa-programa bat da, Euskal Herri osoan, mugaren alde bietako lurraldeetan, material etnografikoak modu sistematikoan batzeko helburua daukana. 1965ean Europako Etnologiari buruzko Nazioarteko Jardunaldian aurkeztu zuen plana egituraturik. 1968an, Zaragozan antolatu zuten Arte eta Ohitura Herrikoien I. Biltzarrean, *Bosquejo de un Atlas Etnográfico del Pueblo Vasco* izeneko komunikazioa aurkeztu zuen, euskal esparruan ordura arte egindako ikerketa etnografikoen inbentarioa eta horien balantze kritikoa eginez.

Plan hori egiteko berak prestatu zuen *Guía para una encuesta etnográfica* galdetegia ere, Iruñeko *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian 1974an argitaratu zena. Lanerako galdetegi hori bihurtu zen aurrerantzean ikerketa egiteko gida eta oinarria.

Etniker egitasmoa gauzatzeko izen bereko taldeak sortu zituen lurraldez lurralde. Nafarroan, 1967an, ikerketa etnografikorako taldea prestatu zuen, unibertsitateko ikas-

leek euren herrietan landa-lana egin zezaten. Hala sortu zen Nafarroako Etniker taldea. Horren ondoren, 1970eko hamarkadan etorri ziren beste taldeak. Kasurako, Etniker Araba 1971n osotu zen; hasieran, Gasteizko Manuel Iradier Sozietatearen inguruan, eta, geroago, Arabako Etnografia Seminarioaren arrimuan. 1972an Etniker Gipuzkoa eratu zen Aranzadi Zientzia Elkartera atxikita; eta Etniker Bizkaia 1973an, Derioko Seminarioan. 1977an Labayru Ikastegia sortu zenean, hango Etnografiako Departamentuan txertatu zen. Etniker Iparralde beranduagokoa da, 1986koa, eta *Association Lauburu Baionara* atxikita, Pirinio Atlantikoetako departamendu frantziarreko euskal lurraldea hartzen du.

Taldeen hedapen horrek ikerketak areagotzea eta ugaritzea eta aldizkari etnografiko berriak sortzea ekarri zuen: batetik *Etniker-Bizkaia* (1975), eta bestetik *Ohitura* (1981) Araban. Horiekin batera, lehendik zeuden biak gogoratu behar dira: *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* Nafarroan, eta *Eusko Folklore Urtekaría* Gipuzkoan. Aldizkariotan inkesta etnografiko orokorreko arlo jakin batzuen gaineko lan zehatzak argitaratu izan dira.

Etniker erakunde legez 1976an gauzatu zen. *Etniker Euskalerría Taldeak* izena hartzen dute lurralde guztietako taldeek federatuta. Lehenengo batzarra Aralarren egin zuten urte horretan talde guztiak batuta, eta harrezkero urtero elkartu izan dira, urte bakoitzean lurralde batean, txandaka.

Antolaketari dagokionez, Labayru Fundazioaren Etnografia Arloa izan da hasieratik proiektua egiteko idazkaritza, Etniker Bizkaia taldearen lan-zentroa eta Etniker Euskalerría Taldeen egoitza. 1988an, Eskualde Arteko Zuzendaritza Batzordea sortu zen, Jose Miguel Barandiaran jauna batzordeburua, Ander Manterola zuzendari-ondokoa eta Gurutzi Arregi koordinatzaile nagusia zirela.

Urte bat lehenago, 1987ko batzar nagusian elkarrekin *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa* proiektuari ekitea erabaki zuten. Jarraian, hurrengo egin beharreko landa-ikerketak planifikatu zituzten, urtero galdetegi orokorreko gai bati aplikatuta. Urterik urte egin ziren kanpaina horietan lortutako datuekin eta aurretik aldizkari etnografiko eta gai horri buruzko bibliografia zabalean egiaztatutakoekin prestatu izan dira *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa*ren egitasmo nagusiko liburuki tematikoak.

Azken hamarkadetan, gure kultura tradizionala, kultura horretako osagaiak eta euren esangura kulturala ikertzeko ardura hartu du Etnikerrek. Horrez gainera, kultura eta elementu horien bilakaeraren erregistroa ere egin izan du. Barandiaranen ustez, ikerketa etnografikoa ikertzaileak bizi duen momentuan kokatu behar da, berri-emaileek eta ikertzaileek bizi izandako aldian. Etnografoak lekukoek bizi eta ezagututako datuak jasotzen ditu; eta horrela, gizartean irauten duten edo zer aldaketa egiten duten jakin ahal izango da.

Garrantzitsuena momentuko kultura aztertzea da, baina horrekin batera, beharrezkoa da aurrekoa ere batzea. Iragana aztertuta, oraingo errealitatea hobeto ezagutuko dugulako, eta bide batez, azken aldiotan izan diren aldaketa bizkorrak ikusteko aukera izango dugulako. Horregatik, Atlas Etnografikoan XX. gizaldiari dagokion bizimodua jaso izan da, edo hobeto esanda, lekukoek gomutan daukatenetik hasi eta gaur egunera bitartekoa.

Atlas Etnografikoaren liburuki bakoitzeko, lurralde guztietako eskualdeetako herri adierazgarrietan egin izan dira landa-ikerketak; batez beste Euskal Herriko 70 herritan. Batutako informazioarekin corpus etnografiko ikaragarria sortu da, denborarekin handitzen joan dena, beti ere gaika sailkatuta. Corpus horretan oinarrituta, Atlas Etnografikoan ikertutako eremuaren ikuspegi orokorra hartzeko aukera dugu, eta horrek abiapuntu eta ikuspuntu zitura eskaintzen digu Euskal Herriko etnografia inguruan dituen herri eta eskualdeetakoekin konparatu ahal izateko.

Barandiaranek berak, Labayru Fundazioan 1979an egindako batzarrean, honela azaldu zuen jarraitu beharreko metodologia: “Lehendabizi zure herria ikasi behar duzu eta zure herria ikasi ondoren, beste herriak ikasi”. Ezagunetik hasi, norberak bizi izandako esperientziatik abiatu, eta gero zabaltzen joan eskualdera, lurraldera eta osotasunera.

Horrez gainera, berak emandako beste agindu bat ere badago proiektu hau aurrera eramateko erabili den metodologiaren oinarrian: datuen garrantzia. Datuak eta informazioa zehatz-mehatz batu behar dira, interpretaziorik egin gabe, eta horien arabera eman behar da azalpen deskriptiboa. Izan ere, datua ondo interpretatzeko, bere testuinguru sozio-kultural zehatzean batu, deskribatu eta sailkatu behar da.

Barandiaranek ikertzaileak euren herriari buruzko ikerketa monografikoak egitera bultzatu zituen. Berak gerraosteko Iparraldeko egonaldian egindako monografiak eredu-tzat aurkeztu zituen Etnikerri proposatutako ikerketetarako.

Haren ustez, monografiak oso garrantzitsuak ziren eta halako ikerketak herri askotan egin beharrekoak ziren, kultura eta lurralde ikuspegi orokorra hartu ahal izateko. Izan ere, herri bateko monografia, onena izanda ere, inoiz ez da osoa, talde etniko baten kultura ez delako auzo edo udalerrri batena, herri askorena baizik. Kultura hori ondoko herrien kulturaren menpe dago eta harekin harreman zuzenean. Horregatik, monografia horiek Euskal Herriko kulturaren ikuspegi orokor baterako tarteko pausotzat hartzen zituen.

Era berean, argi dago etnografiako ikerketa etengabeko eta amaierarik gabeko zeregina dela, bizitza beti aldatzen ari delako. Hori bai, ez da komeni aurretiaz teoriak edo iritziak ontzat ematea, halakoak frogatzera joango ginateke eta. Galdetegia argi eduki behar da, eta horretara ekarri lekukoaren informazioa.

Ikusten denez, Barandiaranek izaera erromantiko batetik ikusten zen disziplina eraldatu egin zuen. Ikuspegi berri batekin heldu zion etnografiari, ikuspegi zientifiko batetik, metodo sistematiko bat erabiliz eta, batez ere, pentsamolde ireki eta zabal batetik. Horrek gure kultura Europako esparru zabalean kokatzeko aukera zabaldu zuen.

Aipatutako metodologia hori jarraituta, Euskal Herriko Etniker Taldeek 1987-2017 urteen bitartean igarotako hiru hamarkadetan, Atlas Etnografikoaren zortzi liburuki argitaratu dituzte. Behar bezalako zehaztasun etnografikoarekin, Euskal Herriko lurralde guztietan bizi izan den kultura herrikoia hainbat gai jaso eta landu dira idatziz. Hauexek dira orain arte argitaratutakoak: *Etxeko elikadura* (1990, 1998an berrargitaratua), *Umeen jolasak* (1993, 2005ean bigarrenez argitaratua), *Hileta-errituak* (1995), *Jaiotzatik ezkontzara bitarteko errituak* (1998), *Abeltzaintza eta artzaintza* (2000), *Herri medikuntza* (2004), *Etxea eta familia* (2011), eta *Nekazaritza* (2017).

Barandiaranek, hil aurretik, berak sortu eta bultzatutako lan honen lehenengo liburukia ezagutzeko aukera izan zuen.

Lan honen emaitza zenbakietara ekarriz gero, irudi hau sortzen da: zortzi liburu-kiok guztira 7000 orrialde inguru osatzen dituzte. Testuarekin batera, 2500 argazki baino gehiago daude, lurralde guztietakoak. Jorratu den gai bakoitzeko, batez beste 750 lekukoren testigantzak jaso izan dira, bakoitzaren ama-hizkuntza errespetatuta (euskara, gaztelania, frantsesa); eta 80 ikerlarik osatu dute lantaldea.

Ezinezkoa izango zen egitasmo hau aurrera eroatea erakundeen babesik gabe. Bide-lagun izan dira bai ikerketa egiteko bai argitalpena bideratzeko orduan. Azken urteotan, corpus osoa digitalizatu eta sarera ekarri da zabalkundea bermatzeko.

3. HAMARKADA HAUETAN LABAYRU FUNDAZIOAK EGINDAKO LANA

Labayru Fundazioak aurretik martxan zeuden egitasmoak batu zituen, 1977an sortu zenean: Derioko Udako Euskal Ikastaroa, euskararen irakaskuntzarekin lotuta; Etniker Taldeen Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren idazketa eta idazkaritza, etnografia arloko ikerlanik garrantzitsuenak; eta Euskal Biblioteka, ikerketarako premiazko ikusten zen bibliografia funts handia.

Sorrera horretan Jose Migel Barandiaranen eta Manuel Lekuonaren lana inspirazio iturri garrantzitsua izan zen. Bi-biak Labayruko Ohorezko Laguntzaile dira.

Hizkuntzari lotutako lana, neurri batean behintzat, Bizkaiko euskaldunak alfabetatzeari lotuta egiten hasi zen, gerora joera hori aldatzen joan bada ere. Derioko Udako Eus-

kal Ikastaroetan metodologia propioa eratu zen, ikasleei euskaraz idazten eta irakurtzen irakasteaz gainera, euskal kulturarekin zerikusia zuten beste hainbat atal ere erakusteko; hala nola, literatura, fonetika eta fonologia, dialektologia ... Eta hortik gora ere, mintegi bereziak eratu ziren, horretarako goi mailako irakasle espezializatuak ekarrita, baita kanpokoak ere, esate baterako Jesus Antonio Cid eta Jose Manuel Pedrosa. Egarri handia zegoen garai hartan euskaldunen artean euskara ikasteko, ikasle gehienek goi mailako ikasketak egin arren, euren hizkuntzan analfabeto sentitzen zirelako. Ezin da ukatu Derioko Udako Euskal Ikastaroak arlo horretan egindako lana oso garrantzitsua izan zela, eta zeozelan aitzindaria eta berritzailea ere bai erabilitako metodologian.

Hainbat urtetan, Udako Ikastaroaren barruan, euskalgintzan zeresana zeukaten pertsoneri omenaldia egin zitzaion: Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Karmelo Etxenagusia, Jose Antonio Retolaza, Alfonso Irigoien, Sorne Unzueta, Piarres Xarriton ...

Baina eskolak emateko, lehenengo irakasleak prestatu behar ziren, ez baitzegoen irakaslegorik orduan eskura. Horretan Mikel Zatek, Karmelo Etxenagusiak eta seminarioan zebiltzan beste abade batzuek itzelezko lana egin zuten. Han zeuden Jose Mari Irazola, Adolfo Arejita, Jesus Eguzkiza *Eguzki*, Miren Egaña, Belen Olaetxea eta beste asko. Urte gutxitan beste hainbatek jardun zuten, sarritan ikasten amaitu eta irakasle bihurtuta, bertako ikasleak eurak baitziren hurrengo irakasle belaunaldirako mintegia.

Metodologiarekin batera, material, apunte, irakurgai, ariketa piloa egin eta bildu ziren. Irakasleak eurak ziren sortzaileak, eta, han egoten zen Ander Manterola beti prest denak jaso eta argitaratzeko; beti zirikatzen apunteok ondo antolatu, prestatu eta koadernoak osotzeko. Akuilu lan hori ondo ere ondo bete zuen. Eta hala sortu ziren Labayruko lehenengo argitalpenak ere. Eta ez metodologikoak edo irakaskuntzarekin lotutakoak bakarrik, baita irakurgaiak eta sorkuntzakoak ere. Izan ere, ikasleek euskaraz idatzitako testuen premia zeukaten, eta ez zeuden gaur bezain eskura halakoak. Apunte-liburuen argitalpenak Leopoldo Zugazaren eskutik egindakoak dira. Lehenengotan bera zen editorea, eta gero Labayru, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntasunarekin.

Gaur egun 600 izenburutik gorako katalogoa dauka argitaratuta Labayru Fundazioak, liburu euskarrian. Horietatik, irakaskuntzarekin lotuta daude bilduma hauek: *Ikasgaiak eta Ariketak, Eskola Tailerra, Gramatika gaiak, Labayru Hiztegia ...*

Liburuetatik aparte, irratia bitartez egiten da gramatikako eta hiztegiko edukien zabalkundea, Bizkaia Irratiarekin elkarlanean batez ere. Eta sarean bitartez ere bai, Facebook eta Twitter erabiliz.

Literatura arloa berehala etorri zen, ikasleen irakurtzeko egarria asetzeko, eta ikasten zuten teoriaren aplikazioa testuetan jasotzeko. Horretara sortu ziren beste bilduma hauek: *Sutondoan, Galburua, Literatur Gaiak, Urbegi, Arragoa ...*

Era berean, ikasleen artean idazteko zaletasuna bultzatzeko eta plaza eskaintzeko asmoz sortu zen 1982an *Idatz & Mintz - Literatur Atalen Sorta* aldizkaria, gaur egun oraindik argitaratzen dena. “Idatz & Mintz” Mikel Zarateren *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuko ipuinetako baten izenburua da. Anaia siamesak dira Idatz eta Mintz, biak elkarriz lotuta bizi dira, eta zalantza sortzen da haien inguruan: Banatu egin behar dira? Biziko dira banatuz gero? Zelan aurrera egin elkarriz lotuta? Izan ere, idatziaren eta ahozkoaren arteko dikotomia bizi-bizirik egon izan da Labayrun, eta orain ere badagoela esango genuke. Aldizkariaren inguruan beste ekimen batzuk egin izan dira urteotan: literatur lehiaketa; aldi batez Bizkaia Irratian astero-astero “Idatz & Mintz” izeneko literaturari buruzko saioa egin zen; testu berezi batzuk separata moduan argitaratu...

Udako Ikastaroen arrakasta ikusita, negura ere zabaldu ziren, kurtso osora. Ikasurteak egiten ziren Bizkaiko hainbat herritan, eskualdeko herri handienetan, eta ikasleak ugaritu ahala, euren eskakizunak ere ugaritzen joan ziren. Horrela sortu ziren “Mikel Zarate ikerketa mintegiak”, jakin-mina zuten ikasleek taldeka eratuta, gustuko gaiak lantzen jarraitu ahal izateko.

Talde bat baino gehiago sortu ziren: ahozko literatura batu eta ikertzekoa; literatura idatzia ikertzekoa; hizkuntza gaiak lantzekoa; didaktikaren inguruko gogoeta egitekoa... Taldeon lanen emaitzak hainbat izan ziren, bai irakasle-ikasleentzako materialak; bai idazleen lanen edizioak prestatzea; bai herri-literaturako bilketak eta argitalpenak.

Hortik sortutako adarrei sendo heldu, eta gaur egun antzeko egitasmoak lantzen dira Labayrun baina modu profesionalean.

Ikastaroak 50 urte bete ditu, eta Labayruk berak ere laster du mende erdia aldean. Ibilbide luzea eta oparoa izan da. Hamarkada hauetan egoera eta eskakizun berrietara moldatu eta egokitu behar izan dugu; eta erakundeak bilakaera eta aldaketa handia izan du, baina fruituak hor daude.

Hizkuntza arloan erreferentziazko lan bi egin ditu Labayru Fundazioak: hiztegia (hiztegia.labayru.eus) eta gramatika, batez ere mendebaldeko aldaeraren deskribapenari eta arauketari lotuta, bietan ere ahozko erregistroari eta hizkera biziari ardura eta kontu handiz erreparatuta. Lan mardulak, lehenengo paperean eta gero sarean, modu digitalean, argitaratu izan direnak. Horrez gainera, bai gramatikan, bai lexikografian hainbat ikerketa bideratu ditu, *Gramatika gaiak* bilduman jasotakoak kasurako, edo *Litterae Vasconicae* aldizkarian argitaratutakoak. Ekarpen filologiko oso garrantzitsua da.

Toponimia ikertzeko lanak ere egin ditugu, herri mailako monografietan gehiengotan. Halakoetan artxiboko araketatik abiatuta ahozkoari ere erreparatzen zaio, ez bakarrik hizkuntza aldaerak batzeko, baita leku-izenok euren testuinguru etnografikoan kokatzeko

ere. Halakoak dira, kasurako, Lezaman, Basaurin, Etxebarrin, Elorrión eta beste herri batzuetan egindakoak

Momentu honetan hizkuntzari lotutako zerbitzuak asko ugaritu dira. Euskaltegi moduan irakaskuntza da orain ere gure zeregin garrantzitsuenetako bat, ikasleen premiak guztiz bestelakoak badira ere. Agiriren bat atera nahi dutenak eta enpresetako beharginak dira gaur egun gure ikasleetako asko. Eskolak bakarka edo talde txikitán ematen dira, eta askoz ere pertsonalizatuago daude.

Horrekin batera, enpresetan eta administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko planak egiteko eta betetzeko zerbitzua ematen dugu, gure teknikarien bitartez. Eta itzulpen-zerbitzu sendoa daukagu, bizkaieraz zein batuaz itzulpenak egiteko.

Literaturaren arloan, gorago aipatu ditugun *Idatz & Mintz* aldizkaria, *Sutondoan*, *Urbegi*, *Arragoa*, *Jarein*, *Santi Onaindia beka*, *Literatur kaierak* ... bildumak indarrean daude, eta aldian-aldian argitaratzen jarraitzen dugu: idazle klasikoen obrak idazkera gaurkotuta eta edizio kritikorekin; idazle zaharrenen idazlanak faksimile erara; sorkuntzako literatura lanak; literaturari buruzko ikerketak; ikasleentzako gida moduko lan didaktikoak. Paperezko euskarriari eutsi zaio hainbat kasutan, beste batzuetan fisikoa birtualarekin batera doa, eta argitalpen batzuk sarean baino ez dira egiten. Edukietan ez ezik, euskarrietan ere aldaketa asko etorri dira, eta guk egokitu egin behar izan dugu.

Nabarmentzekoa da Labayruk, sortu zenetik, herri-literaturari emandako lekua eta garrantzia. 1980ko hamarkadan, hainbat kanpaina eratu ziren ikasleen bitartez, bakoitzak bere herrian kantuak eta kontuak batzeko. Ikertzaileok prestatu egiten ziren, gutxieneko metodologia azaldu, jasotzekoak ziren gaien gidak eman, eta kasetekin joaten ziren etxetako sutondoetara grabatzera. Hala batu ziren hainbat balada, bertso-kopla, ipuin eta abar, gaur egun jasotzea ezinezko direnak.

Ordutik aurrera, grabatzeko lanari jarraian ekin izan zaio, eta argi eta garbi ikusi dugu hainbat kantu, ipuin, esamolde ... bidean galdu direla. Horregatik, corpus hori guztiz galdu ez dadin, argitalpenen bidez ahalegindu gara transmisioa bermatzen. Arlo horretako argitalpenak dira, kasurako, *Herri ipuinak* eta *25 kanta eder* bildumak.

Horrezaz gainera, *Idatz & Mintz* aldizkarian hasieratik bertatik argitaratu izan dira herri-literaturako txatalak. Eta gaur egun ere, Jabier Kaltzakortaren eskutik, benetako bitxiak berreskuratu ahal izan dira. *Laratz* bilduma ere horretarako sortu zen, herri-literaturako materialak argitaratzeko. Baladak, dantza-koplak, ipuinak ... hainbat hedatu izan dira, Bizkaikoak, Gipuzkoakoak, Nafarroakoak. Bai lan ederrak, benetan kontuan hartu beharrekoak halako gaietan interesa edukiz gero.

Egitasmo sonatuak ere egin izan dira, hala nola, *Katuen testamentua* (1993) eta *Urte-sasoak* (1997-2000). Lehenengoa Ikastolen Elkarte eta Oskorriekin batera bide-

ratu genuen. Labayrun jasotako herri-kantu sinpleenetakoak aukeratu eta guraso eta ume txikienei zuzenduta moldatu ziren. Lan horrek arrakasta itzela izan zuen Euskal Herri osoan. Bigarrena ere Ikastolen Elkartearekin batera gauzatu zen, eta Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek babestuta egin zen. Urte-saso bakoitzari dagokion etnografia eta folklorea azaltzen zen bertan; liburu, disko eta bideo euskarritan. Horretan ere famadun abeslarien laguntza bilatu zen eta Pantxoa eta Peio, Amaia Zubiria, Alex Sardui eta Anje Duhaldekin hartu zuten parte. Gaur egun egitasmo horretako eduki guztiak sarean daude ikusgai: www.urtesasoia.com.

Beste kasu batzuetan, ostera, gure artxiboa beste autore batzuen lanetarako iturri-tzat erabili izan da. Halakoa da Hiru truku taldeak egindako Bizkaiko baladen diskoa, Labayrun batutako baladen aldaera batzuk erabili baitzituzten.

4. LABAYRU FUNDAZIOA ETA ETNOGRAFIA: HERRI ONDARE ATALAREN SORRERA

Labayru sortzean, Etniker taldeen egitasmo nagusia, *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa*, bertako etnografia sailean txertatu zen, beste taldeen aldean, Etniker Bizkaiaik Labayruko Derioko egoitzan egitura finkoa zeukalako. Harrezkero, aipatutako lan hori izan da etnografiako departamentuko ikerketarik garrantzitsuenak.

Horren arrimuan, ostera, apurka-apurka beste era bateko zabalkundea egiteko egitasmoak garatu dira, *herri-ondarea* esaten zaion gai zabala oinarritzat hartuta. Lan horien helburu nagusia transmisioa bermatzea da. Guk informazioa jasotzen jarraitzen dugu, eta lehen libreta eta arkatzarekin egiten zirenak, gaur egun argazki-kamera eta bideo-kamerarekin egiten ditugu. Beti benetako iturrietatik abiatuta, lekukoei grabazioak eginez ondare etnografikoa eta linguistikoa batzen dugu. Istorioak eta kontakizunak bildu eta kontalarien eta entzuleen eta hartzaileen bitartekari lana egiten dugu. Behin grabatuta, informazioa landu eta egituratu, eta berriro gizarteratzea da helburua; herritarren artean zabaltzeko material dibulgatiboa egitea, gaur egun inoiz baino aldenduago dauden belaunaldi bi batzeko modua sortzea.

Orain hamarkada batzuk arte, eguneroko bizimoduaren eta kultura ondarearen transmisioa belaunaldiz belaunaldi egiten zen. Gurasoek seme-alabei eurak ikasitako ohi-tura eta ikusmoldeak, uste-sinesmen eta jokabideak irakasten zizkieten. Baina gaur egun hori ez da bete-betean hala, eta ahozko transmisio hori eten egin da.

Transmisio bideak gutziz aldatu dira, etxetik eskolara eta sare sozialetara igaro dira. Gaur egun bitartekorik berrienak erabilia ikus-entzunezkoen bidez irakasten da.

Horregatik, garrantzitsua da bai eskolan bai sare sozialetan informazio egokia egotea eta eskaintzea.

Labayruk arlo honetan era askotako materialak landu izan ditu. Hasieran ohikoena liburu formatuko argitalpenak egitea zen. Hala sortu zen *Geureak* bilduma. Lehendik zegoen *Laratz* bildumarekin batera, bieran etnografia, herri-kultura eta herri-literaturako gaiak argitaratu izan dira. Laratzeko materialak sakonagoak dira, zabalago landuta daude; Geureak bildumakoak, ostera, dibulгатiboagoak dira, eta testuari laguntzeko, irudiak ere garrantzi handia hartzen du.

Batean zein bestean gai monografikoak landu izan dira. Batzuetan herri edo eskualde bati lotuta, bertako bizimodua aztertuta. Adibidez: *Antxinako Berriz, Ibarrangelu kantu eta kontu, Busturia, bizimodua eta ohiturak...* Eta besteetan gai jakin bati buruzkoak: *Mendebaldeko euskal baladak, Dantza-kopla zaharrak, Aratusteak Bizkaian, Marijesiak Abenduko koplak*. Lan horietako batzuek, testuetako azalpenak irudi bidez erakusteko eta zuzeneko lekukotasunen bitartez adierazteko, DVDA erantsita daukate.

Horrez gainera, *Etnografia atalak / Apuntes de etnografía / Basque Ethnography at a glance* izeneko blogaren bitartez, astean-astean etnografiako gai bati buruzko artikulua argitaratzen da euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Sarean daude ikusgai denak (<https://www.labayru.eus/etnografia-atalak>). Eta gero, urteko guztien artean hamabi artikulua hautatuta, *Gurean zer berri? Zaharrak berri* bilduman argitaratzen dira. Honezkero bost liburuko bilduma da.

Arestian esan dugun bezala, gaur egun ikastetxeek eta beste agente batzuek (aisialdirako taldeek, kultur taldeek ...) sekulako garrantzia dute gure ondarearen transmisioa bideratzeko orduan; horregatik, sortutako material batzuk zuzenean eskoletan lantzeko eta geletan zabaltzeko dira. Kasurako, *Mixeri eta Mau: ume kantu eta jolasak; Zuztarretatik ahora; Zer ikusi ha ikasi; Erandioko leku-izenak; Mungian zaharrak berri...* Ondarea bera hezkuntza baliabide boteretsua da, eta gai ugari landu daitezke ondarea abiapuntutzat hartuta: ingurune naturala, soziala eta kulturala. Ikasleen ingurune hurbiletik eta eza-gunetik abiatuta, espazio- eta denbora-eskala ezezagunetara jotzeko aukera ematen du. Horregatik, unitate didaktiko interaktiboen bitartez, lekukoen informazioa oinarri dela, ikastetxeetako curriculumera egokitutako materialak sortzea izan da helburua. Hala ere, gurasoek etxean zein herriko edonork erabiltzeko ere balio dute. Azken batean, denok, gizarte osoa gara kultura-ondarearen ahotsa, eta geure zeregina da babestea, ezagutaraztea eta iraunaraztea. Gizartearen erantzukizuna da ondarea zaintzea.

Lan horietako abiapuntua herrian herriko bizimodua da: udalerrria zelakoa den, auzoetako banaketa eta egituraketa, auzotarren arteko harremanak, etxea eta familia, jatekoak eta elikadura, osasuna, lanbideak, ospakizunak eta errituak, bizitzako sasoi-tako prozesuak eta abar. Gaiok lantzeko, curriculumeko edukiak gehituta, ariketak eta jolasak

sortu dira unitate didaktikoetan. Horrela, edukiak ikasten dituzte, eta bide batez, herrian herriko euskararen ezaugarriak, lexikoa, ahoskera eta bestelakoak ere. Era horretako materialak hainbat euskarritan argitaratu izan dira: liburu, CD, DVD, webgune...

Beste material aberats bat da www.herriondarea.eus webgunea. Mapa interaktibo baten bitartez, herriz herriko nabigazioa egin daiteke, eta herri bakoitzean hango lekukoei egindako grabazioen bideo-txatalak aurkitu daitezke. Txatalok gaika sailkatuta daude; horregatik, bilaketa bai gaika, bai herrika egiteko modua dago. Bideo-txatal bakoitzak, bertan ikusi eta entzun ahal izateaz gainera, lekukoaren datuak ditu eta hark esaten duenaren laburpena dauka idatziz, ulermena errazteko. Honezkerok 4.000 bideotik gora daude ikusgai webgune horretan.

Gaur egun herrietako ondarea zabaltzeko beste bide bat ibilaldiak egitea da. Bakoi-tza bere herri inguruan edo alboerrietatik ibiltzeko ohitura handia dago azkenaldian. Sarritan udalek eurek ibilbideak markatuta dauzkate, mapetan argitaratuta eta seinaleak jarrita. Halakoak oinarri hartuta, ibilbide batean sartzen diren herriko ondarearen elementuak erakusten dituen ikus-entzunezkoak egin ditugu udal askotan. Erraz ikusteko bideoak dira, 15 minutu ingurukoak, eta ibilbidearen aitzakian igarotzen diren hainbat lekutako jakingarri ugari azaltzen dira: leku-izenak (etxeak, auzoak, iturriak, landak...), ohiturak (ermitetako jaiak, ospakizunak, sineskerak, auzolana, kofradiak...), lanbideak (errotak, errementariak, arotzak, joskileak, tabernak, ikazkinak, artzainak...). Produktu arinak dira, erraz zabaltzekoak, jende askorengana heltzeko modukoak; baita ibiltzea, naturaz disfrutatzea edo osasuna helburutzat duten pertsonengana heltzeko modukoak ere. Gainera, oso material egokia da udalek aisialdirako eratzen dituzten jardueretan, umeekin, gazteekin eta familiekin erabiltzeko, eta bide batez gure ondarearen transmisioa egiteko.

Landu ditugun bideo guztiok Labayru Fundazioaren Youtubeko kanalean daude argitaratuta, edonoren esku. Horixe dugu hainbeste lanen erakusleihoa, erabiltzaileengana heltzeko biderik egokiena delakoan. Kanal horretan daude ibilbideei buruzko bideoak, gai zehatzei buruzko dokumentalak, ekintza eta adierazpen jakinen grabazioak, bai eguneroko bizimodu tradizionalari lotutakoak (gazta egitea, artoa ehotzea, txerri-hiltzea, txakolina egitea...) bai ohitura eta jaiari lotutakoak (Dantzari-dantza, Errebonbilloak, Marijesiak..., besteak beste). Horretara, ondare-manifestazioa bera ikusteko aukera dago, baita haren gaineko azalpenak ere.

Gero eta gehiago, zahar eta gazte, denok sartzen gara era askotako informazioaren bila ordenagailuaren eta telefonoaren bidez. Edozein momentu izan daiteke aproposa kontsulta bat egiteko, garraio bidean, lagunei itxaroten gaudela, edo bakarkako uneetan. Horregatik, oso garrantzitsua da era honetako edukiak eskuragarri egotea eta eskaintzea. Teknologia berriek ematen dizkiguten aukerak baliatu behar ditugu geure helburuak lortzeko eta ondarearen transmisioari bide emateko.

5. BARANDIARANEN IRAKATSIK BIZIRIK ORAINDINO

Gauzak eta jokatzeko moduak erabat aldatu dira gure bizimoduan eta horrek ondorio zuzena izan du hizkuntza- eta kultura-ohituretan, lan egiteko moduetan, kezka intelektualetan... Baina, hala ere, gure ikerketetarako, izenburuan jarri dugun ondorio hau atera daiteke: Barandiaranen irakatsiek bizirik irauten dute. Gaur egun ere gure ikerketak bideratzeko hark irakatsitako hainbat oinarri oso kontuan ditugu:

- Herrian herrikoa batu, hurbiletik hasita, lehenengo geurea aztertu eta ulertu.
- Materialaren bilketa, informazioa batzea eta jasotzea amaigabeko zeregina da, inoiz bukatzen ez dena. Izan ere, bizitza, bizimodua eta ondarea bera etengabe ari dira aldatzen, eta gaur egun gero eta arinago, gainera. Horregatik da garrantzitsua ikerketaren jarraitasuna.
- Horrekin lotuta, datuak batu behar dira, informazioa ondo zehaztuta: datak, kronologia, ezaugarriak, deskribapenak, lekukoan aipamenak... ahalik eta zehatzen batu behar dira, gero bilakaera osatu ahal izateko, eta konparaketak egin ahal izateko.
- Gure lana nahiko deskriptiboa da, etnografikoa, gehien bat informazioa batzen dugu, teoriarik egin gabe, beste inork aztertzeke eta teoriak egiteko balio izatea nahi dugu. Orain arte izan diren moduan, hemendik aurrera beste ikerketa batzuetarako iturri erabilgarria eta aberatsa izatea gurako genuke.

Argi dago Barandiaran bizi izan zen garaian baino informazio gehiago daukagula, bitarteko gehiago lan egiteko, eta teorietan ere aurrerakuntza handia egin dela. Baina gaurko gizarteak dituen premiei erantzuteko, Barandiaranek hasitako bideak eta eskolak zer irakatsi asko daukate gaur egun ere.

Gaurko bizitzak ezer badauka da aldaketak arin ere arin gertatzen direla, ziztu bizian datoz, eta batera ohitu orduko, berria dator ate joka. Teknologiak agintzen digu hainbat arlotan, eta teknologien munduan bost urte asko dira, gailu bat asmatu, orokor bihurtu eta zahar geratzeko beste denbora, kasurako. Arintasun horrek sarritan bilakaeraren pausoei ez erreparatzea dakar.

Horrekin batera globalizazioaren indarra aipatu beharra dago. Izan ere, gaur egun mundu osoko berriak, musikak, modak, jakintza eta abar eskura daukagu. Estimulu gehiegi jasotzen ditugu. Informazio asko eta asko heltzen zaigu, eta azkenean gero eta zailagoa da bereiztea zer den geure-geurea eta zer beste inorena, nahastea delako nagusi; eta sarri gehiago ezagutzen dugu urrutitik datorrena etxekoa baino.

Baina gure kultura maitatzeko, lehenengo eta behin, derrigorra da ezagutzea, ulertzea, errespetatzea, zaintzea...; eta horretarako, berriazko material didaktikoak sortzen jarraitu behar dugu.

Globalizazio horren eraginez, denok gara berdinago, antzekoago, parekoago ... Baina era berean, bakoitzak bere nortasuna, bere identitatea eraikitzen duten ezaugarriak eutsi nahi die, globalizazio horri uko egin gabe bakoitzak bere beretasuna behar du, bereari eutsi nahi dio. Eta hor kultura-ondarea bete-betean sartzen da. Ondarea identitatearen elementu garrantzitsua delako: “gu” garela jakitea, talde bateko kide garela sentitzea, herri eta gizarte bateko partaide. Horretarako gure sustraiak eta gure ezaugarriak ikertzen jarraitu behar dugu, iraganaren, orainaren eta geroaren lotura egin ahal izateko.

Horixe izango da Labayru Fundazioaren erronka hurrengo urteetan ere, katea eten ez dadin, eta aurrekoak izan ziren moduan, hurrengoak ere ondarearen partaide, jabe, eta lekuko izan daitezten.

BIBLIOGRAFIA:

- Arregi Azpeitia, Gurutzi; Manterola Aldecoa, Ander; Oar-Arteta, Segundo. “Jose Migel Barandiaranen ondorengotza”. Etnografia atalak bloga (2017-01-06an argitaratua): <https://www.labayru.eus/etnografia-atalak/jose-miguel-de-barandiaranen-ondorengotza/> (2021-06-16an kontsultatuta)
- Barandiaran Ayerbe, José Miguel de. *Curso monográfico de Etnología Vasca*. Colección Sara nº 4. Ataun: Fundación José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2000.
- Etxebarria Zamalloa, Igone; Kamiruaga Garitaonaindia, Akaitze. *Euskal Pizkundea Bizkaian*. Bilbao: Labayru Fundazioa, 2012. DVD.
- Euskaldunak – Euskal etnia* 4. Donostia: Etor, 1984.
- Labayru Ikastegia. *XXV años de historia – XXV urteko bidea. 1977-2002*. Bilbao: Instituto Labayru Ikastegia, 2002.
- Manterola Aldecoa, Ander; Arregi Azpeitia, Gurutzi. *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran (1889-1001)*. Colección Sara nº 1. Ataun: Fundación José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2003.
- Manterola Aldecoa, Ander. *Zeanuritik Euskal Herrira*. Bilbao: Labayru Fundazioa – BBK Fundazioa, 2015.
- Martínez Fernandez de Larrinoa, Gaspar. “El movimiento Derio: raíces y frutos” in *Labayru Ikastegia. XXV. urteurrena (1977-2002)*. Bilbao: Labayru Ikastegia – Bilbao Bizkaia Kutxa, 2003, 21-25 or.
- Peña Cerro, Luis Manuel. “La transmisión de los conocimientos”. Etnografia atalak bloga (2020-02-28an argitaratua): https://www.labayru.eus/es/?s=la+transmisi%C3%B3n+de+los+conocimientos&post_type=apunte